

SPrako Tranbiak Literatur Sari Nazionala irabaztean egunkariak izan duten jarrera

(The attitude of newspapers on the National Literature Prize awarded to *SPrako Tranbia*)

Alijostes Bordagarai, Koldo

Eusko Ikaskuntza. General Álava, 5. 01005 Gasteiz.

BIBLID [1137-4454 (2006), 22; 43-62]

Jaso: 04.11.15

Onartu: 05.01.14

Espainiako Narratiba Sari Nazionala, Elorriagaren lehen liburua den "SPrako tranbia"-ri ematea ezustekoa izan da literatur munduan eta zer esan berezia eman du egunkari batzuetan. Literatur lanaz baino gehiago literatura sistemaz hitz egin da. Euskal Literatur sisteman hautsa harrotu da, bertan baloratu ez dena kanpoan saritu delako. Espainia mailan gaia politizatu da eta zalantzan jarri dena sariketa prozesua bera izan da.

Giltza-Hitzak: Egunkarien jarrera. SPrako tranbia. Literatur Sari Nazionala. Irabazi.

La concesión del Premio Nacional de Narrativa de España al primer libro de Elorriaga "SPrako tranbia" ha sido una sorpresa en el mundo literario y ha dado mucho que hablar en determinados periódicos. Más que de trabajo literario se ha hablado de sistema literario. Ha habido revuelo en el sistema literario vasco, ya que lo que no se ha valorado en casa ha resultado premiado fuera. En España el asunto se ha politizado y se ha puesto en duda el procedimiento mismo del certamen.

Palabras Clave: Actitud de los periódicos. Un tranvía en SP. Premio Nacional de Literatura. Ganar.

La remise du Premio Nacional de Narrativa de España (Prix National du Roman d'Espagne) au premier livre d'Elorriaga "SPrako tranbia" a surpris le monde littéraire et a beaucoup fait jaser dans certains journaux. Plus que d'un travail littéraire on a parlé d'un système littéraire. Cela a jeté le trouble dans le système littéraire basque, car ce qui n'a pas été apprécié à la maison a reçu un prix en dehors. En Espagne l'affaire s'est politisée et l'on a mis en doute le procédé même du concours.

Mots Clés: Attitude des journaux. Un tramway en SP. Premier National de Littérature. Gagner.

1. SARRERA

Lana honetan Literatur Sistemaz arituko naiz. Hau da, Itamar Even-Zohar irakasle israeldarrak 1990ean formulatutako teoriaren bidetik. Bertan, literatura ez da kontsideratzen inmanenteki aztertu beharreko gaia, baizik eta inguruko baldintza guztiekin batera aztertzea, XX. mende hasieran formalista errusiarrek proposatu zuten bezala. Horixe da, hain zuzen, literatura sistema: literatur lanez gainera (produktua), irakurleria eta idazleria (ekoizleak eta kontsumitzaileak), merkatua, literatur erreperitorioa eta instituzioa (produktua balioesten duten alderdi guztiak: akademia, hezkuntza sistema, literatur kritikoak, sariak, eta abar).

Hain zabala den esparru honetan murgildurik, aukeratu dudana zera da: ***“SPrako tranbia”k Literatur Sari Nazionala irabaztean egunkariak izan duten jarrera.***

Espainiako Narratiba Sari Nazionala, Unai Elorriagaren lehen liburua den *“SPrako tranbia”*ri ematea ezusteko bat izan da literatur munduan eta zer esan berezia eman du egunkari batzuetan. Idazle gazte baten lehen liburua izatea, euskaraz idatzia izatea eta euskal literatur sisteman hain baloratu izan ez den lan batek (Euskadi Sarirako ez da aukeratua izan) Espainiako sari garrantzitsuena jasotzea, ezustekoa izateko beste arrazoi badirela iruditzen zait.

Lanaren helburu nagusia, egunkariak Narratiba Sari Nazionala *“SPrako tranbia”*k irabaztearen aurrean izan duten jarrera aztertzea eta ondorio batzuk ateratzea izango da.

Amaitzeko esan nahi nuke, azterketa honetan aurkezten ditudan ondorio eta gogoetetara iristeko, sariketaz idatzitakoan oinarritu naizela hitzez hitz, baina beti ere leerroarteko iradokizunek beste irakurketa batzuk izan ditzakete.

2. IDAZLEA

Unai Elorriaga idazle berria eta gaztea dugu, 1973an Bilbon jaioa eta gaur egun Algortan bizi dena. Euskal Filologian Deustuko Unibertsitatean lizentziatua da, institutu bateko irakaslea eta orain itzultzaile lanetan Labayru Ikastegian dabilena. Hainbat saiakera eta kritika literario argitaratu ditu, iaz *“Literatur Ideia batzuk”* saiakera argitaratu zuen. Baina bere lehen eleberria saritua izan den liburua da, *“SPrako tranbia”*.

3. LIBURUA

Titulua: *SPrako tranbia*

Orriak: 156

Argitaletxea: Elkarlanean 2001

Argitaratutako aleak: sariaren aurretik 2000 ale eta bi hilabeteetara 13.000 ale

Salneurria: 10,50 €

Ezohiko nobela da, nobela laburra, 156 orrikoa. Ezohiko egitura batekin, ez da lineala, denboran aurrera eta atzera dabilena. Narratzaileak hirugarren pertsonan eta lehen aldian dihardu, baina pertsonaien idatziak (burutazio-ipuinak) orain aldian eta lehenengo pertsonan daude.

Laurogeita hamar urte dituen agure bat da protagonista. Oroimena irudi-menarekin nahasten du, burua galtze prozesu bat azaltzen zaigu. Tranbiak eta 8.000ko mendiak (Shisha Pangma batez ere) gustatzen zaizkio, eta beraietara joateko irrikitan dabil beti. Lucas, Maria bere arrebarekin bizi da, eta hildako emazteaz maiz gogoratzen da. Marcos pertsonaiak ere badu garrantzia, etxean sartu zaien gazte okupa da hau, eta agurearekin harreman berezi bat lortuko du.

Idazkera xamurra du eta ukitu poetikoa gailentzen da.

Borges eta Rulforen, eta Cortazarren errealismo magikotik zerbait ba omen du.

4. SARIKETA

Narratiba Sari Nazionalak Estatu Espainiarrean aurreko urtean argitaratutako liburu guztien artean onena nabarmentzen du, eta saria 15.025,30 eurokoa da, garrantzitsua beraz.

Erabaki hau hartu duen epaimahaiaren burua Fernando Luis Lanzas izan da, eta bere inguruan izan dira Jose Antonio Pascual Rodriguez, Manuel Gonzalez Gonzalez, Ana Toledo Lezeta, Jaume Cabre i Fabre, Andres Sorel, Juan Carlos Peinado Cobo, Valentin Puig Mas, Sergio Vila-Sanjuan, Jose Luis Martin Nogales eta Josefina Aldecoa.

Ana Toledok (Euskaltzaindia) proposatu zuen, eta kataluniarren eta gali-ziarren babesa dela medio azken finalerako sailkatu zen. Berarekin batera "Jugadores de billar", Jose Abellorrena, eta "Romanti-cismo", Manuel Longaresena, geratu ziren finalista. Irabazlea aukeratzeko lehia handia izan omen zen. Bederatzi bozketa egin behar izan ziren erabakia hartzeko, sari honetan errekorra.

Epai mahaikideek eleberria irakur zezaten, uda honetan Elorriaga berak itzuli zuen gaztelerara.

5. EGUNKARIETAN ARGITARATUTAKOA

Atal honetan egunkarietan argitaratutakoaren datuak emango dira.

Egunkariak aukeratzerakoan bi esparru bereiztu ditut: Bertakoak eta Madrilen argitaratzen direnak.

Bertakoak esatean Hego Euskal Herrikoak esan nahi da, hauek hain zuzen ere: Euskaldunon Egunkaria, *Gara*, *Deia*, *El Correo*, *Arabako Egunkaria*, *Diario de Navarra*. *El Diario Vasco* ez dut hautatu *El Correo*ren ildo berekoa delako, eta artikulua berdinak edukitzen dituztelako.

Estatukoak *El Mundo*, *El País*, *ABC*, eta *La Razón* aztertuko ditut, garrantzi-tsuenetakoak direlakoan.

Bost egunetan argitaratutakoa jasoko dut, saria eman ondorengo bost egunak, urriak 9 asteazkenetik urriak 13 igandera arte. Epe hau hartu dut oihartzun gehien hemen izan zuelako.

Egunkari bakoitzak egun bakoitzean argitaratutako artikuluen izenburuak emango ditut, zein orritan eta zein ataletan dauden zehaztuz.

5.1. Bertakoak

5.1.1. El Correo

02/10/09 **asteazkena**

AZALA: *“Unai Elorriaga obtiene el Premio Nacional de Narrativa por ‘Un tranvía en SP’ ”*

CULTURA, 76 orria: *“Mis personajes tratan la vida con ironía, el desastre con desparpajo”*
“Segunda vez que se concede a una obra escrita en euskara”

02/10/10 **osteguna**

CULTURA, 72 orria: *“Si la literatura es buena, da igual el idioma”*
“La vida está hecha de escenas”

5.1.2. El Periódico de Alaba

02/10/09 **asteazkena**

AZALA: *“El bilbaino Unai Elorriaga gana el Premio Nacional de Narrativa”*

SOCIEDAD Y CULTURA, 32 orria: *“Elorriaga: “¿Qué pinto yo con gente que está en la historia de la literatura?””*

5.1.3. Euskaldunon Egunkaria

02/10/09 asteazkena

AZALA: *“Unai Elorriaga Espainiako Narratiba saridun”*

EGUNKARI gehigarriaren azala, 37 orria:
“Laino batean nago, oraindik ez dut sinisten”

EGUNKARI, KULTURA, gehigarria, 42 orria:
“Unai Elorriagak irabazi du Espainiako Narratiba Saria”

ELKARRIZKETA: *“Sariaren ondoren beldurra ematen dit bigarren eleberria kaleratzea”*

EGUNHARI, KULTURA, gehigarria, 43 orria:

LIBURUA: *“Aldapa ederra Shisha Pangman gora”*

02/10/10 osteguna

AZALA: *“Unai Elorriaga hizpide izan da Frankfurteko liburu azokan”*

IRITZIA, Fredi Paia, 5 orria: *“Zorionak, Unai!”*

EGUNHARI gehigarriaren azala, 37 orria: *“Elorriagaren sariak goxatu du Frankfurteko azokaren hasiera”*

EGUNHARI, KULTURA, gehigarria, 42 orria: *“Elorriagaren saria hizpide izan dute euskal erakusmahaian, Frankfurten”*

02/10/11 ostirala

IRITZIA, 3 orria: *“Zorionak” Jon Alonso*

5.1.4. Deia

02/10/09 asteazkena

AZALA: *“Unai Elorriaga gana el Premio Nacional de Narrativa”*

D2 gehigarria, azala, 57 orria: *“Unai Elorriaga cumbre en narrativa”*

D2 gehigarria, 58 orria: *“Me alegro por él, por el euskera y por la cultura del ‘ala’ vizcaina”* Bernardo Atxaga

D2 gehigarria, 59 orria: *“Creo que Unai Elorriaga ya tiene ‘voz’ propia”*
Xabier Mendiguren
“Sorprende la manera de describir los personajes” Ana Urkiza

ELKARRIZKETA: *“Irakurtzen dudak guztiari ateratzen diot zeozer”*

02/10/10 osteguna

AZALA: *“UNAI abrumado por la fama”*

D2 gehigarria, azala, 49 orria: *“UNAI ELORRIAGA abrumado por la fama”*

D2 gehigarria, 50 orria: *“Ospeak dakarrena, goxoki edo zama”*

“Hizkuntza biak erabili ditzakegula frogatu dugu euskaldunok” Igor Estankona

“Ahots berria da Elorriagarena eta ahots interesgarria” Anjel Lertxundi

“Beldur naiz ez ote dezakeen ideia baikorregia eman” Ramon Saizarbitoria

“Gure literaturaen osasun onaren eredu da saria” Ixiar Rozas

“Bestelako joera dago euskal literaturan, eta alde ludikoa ez da baloratzen” Jon Kortazar

“Gazteak atzetik datozenaren eredu argia da” Jon Arretxe

5.1.5. Diario de Navarra

02/10/09 asteazkena

AZALA: *“Unai Elorriaga Premio Nacional de Narrativa con “SPrako tranbia””*

SOCIEDAD Y CULTURA, 20 orria: *“La primera novela de Unai Elorriaga, en euskera, Premio Nacional de Narrativa”*

5.1.6. Gara

02/10/09 asteazkena

AZALA: *“El premio español de narrativa, para Unai Elorriaga”*

KULTURA: *“Unai Elorriagak espainiar Narratiba Sari Nazionala irabazi du ‘SPrako tranbia’gatik”*
“Sariak bost axola” Xabier Mendiguren Elizegi

02/10/11 ostirala

IRITZIA, gaztealgara 10 orria: *“Unai Elorriaga”* Jon Benito

02/10/13 igandea

IRITZIA, 8 orria: *“Sari baten argi-ilunak”* Laura Mintegi

5.2. Estatukoak

5.2.1. ABC

02/10/09 asteazkena

OPINIÓN, BREVERÁS, 8 orria: *“SPrako tranbia”*

CULTURA Y ESPECTÁCULOS: *“Unai Elorriaga, premio Nacional de Narratiba con su primera novela”*

02/10/10 osteguna

CULTURA, 50 orria: *“Elorriaga declara ahora que el Nacional de Narrativa no es español, sino literaria”*

02/10/11 ostirala

AZALA: *“CULTURA. Crece la polémica por la concesión a Unai Elorriaga del nacional de Narrativa”*

OPINIÓN, 7 orria: *“EL ERROR DE CULTURA”*

CULTURA, 49 orria: *“El jurado del Nacional de Narrativa no supo que Unai Elorriaga había traducido solo dos capítulos de su novela”*

02/10/12 larunbata

OPINIÓN, 9 orria: *“PREMIOS A LA FINLANDESA”* Juan Manuel de Prada

CULTURA, 54 orria: *“Unai Elorriaga afirma que su éxito reside en mezclar estilos ya existentes”*

5.2.2. El Mundo

02/10/09 asteazkena

AZALA: *“CULTURA/El Ministerio concede el Premio Nacional de Narrativa a una ‘opera prima’ en euskara”*

IRITZIAK, 2 orria: *“Una obra en euskara gana el Nacional de Narrativa”*

CULTURA, 57 orria: *“Estoy a favor del diálogo: hablar es bueno, nunca le hizo mal a nadie”* Ubai Elorriaga

02/10/13 igandea

CRÓNICA, 15 orria: *“Nacional de Narrativa / premio a un joven vasco”*

5.2.3. El País

02/10/09 asteazkena

LA CULTURA, 38 orria: *“El escritor vasco Unai Elorriaga gana con su primera novela el Nacional de Narrativa”*

02/10/11 ostirala

PAIS VASCO, 5 orria: *“Dentro y fuera”* Jon Kortazar

LA CULTURA, 38 orria: *“El jurado defiende el valor literario del Premio Nacional de Narrativa frente al afán de politizarlo”*

02/10/12 larunbata

LA CULTURA, 31 orria: *“Una sorpresa literaria”* Josefina Aldecoa

02/10/13 igandea

IRITZIAK, 2 orria: *“Audacia intuitiva”* Luisa Etxenike

02/10/14 astelehena

PAIS VASCO, GAIK, 4 orria: *“Ikasten ari naiz, baina badakit bide honetatik jarraitu behar dudala”* Unai Elorriaga

* egun honetan argitaratutakoa ere kontuan hartu dut, lehen egun hauetan sar-tzen delako.

5.2.4. La Razón

02/10/09 asteazkena

AZALA: *“Una obra en euskera gana el Nacional de Narrativa”*

23 orria: *“Una opera prima en euskara gana el Nacional de Narrativa”*

02/10/11 ostirala

CULTURA, 23 orria: *“Cultura y el jurado defienden a Elorriaga y la ‘corrección’ del Premio de Narrativa”*

02/10/12 larunbata

23 orria: *“Así se eligió el Premio Nacional de Narrativa”*

02/10/13 igandea

CULTURA, 22 orria: *“Elorriaga: “Ahora me llaman políticos y me parece que hablo con personas de Marte””*

6. ESKEINI DIOTEN ESPAZIOA

Egunkariak gai honi eskaini dioten espazio zehatza neurtuko dut. Bertan ez da bereiztuko irudia edo testua den, espazioa oro har cm²-tan jasoko da.


Egunkari bakoitzean egingo diren neurketetan datuak bost atal nagusi hauetan sailkatuko dira:

- A. azal nagusian eskaini zaion espazioa
- B. gehigarrien azalean eskaini zaion espazioa
- C. iritzietan eskaini zaion espazioa
- D. beste ataletan eskaini zaion espazioa
- E. guztira eskaini zaiona

EGUNKARIAK	azal nagusian	gehigarrien azalean	iritzietan	beste ataletan	guztira
1 Euskaldunon Egunkaria	476	855	466	1.899	3.695
2 Gara	143		490	981	1.613
3 Deia	166	1.588	210	3.268	5.233
4 El Correo	28			1.828	1.855
5 El Periodico de Álava	44			525	569
6 Diario de Navarra	22			405	427
7 El Mundo	37		483	855	1.375
8 El País			637	2.526	3.162
9 ABC	133		252	3.355	3.739
10 La Razón	36			1.598	1.634

*espazio kopuruak cm²-tan

Grafiko honetan egunkari bakoitzak guztira eskaini dion espazioa eta atalka eskaini diona irudietan ikusiko dugu:



Datuak bere horretan hartzen baditugu, lau multzo egingo nituzke eskaini duten espazioa gehienetik gutxienera sailkatuz:

1. Deia

2. ABC

3. Euskaldunon Egunkaria

4. El País
- }
- 5.000 cm²-tik gora
5. El Correo

6. La Razón

7. Gara

8. El Mundo
- }
- 3.000 cm²-tik 4.000ra
- 1.000 cm²-tik 2.000ra

9. El Periódico de Álava
10. Diario de Navarra



1000 cm²-tik behera

Lehen irakurketa batetan, espazio gehien eman duen egunkaria Euskal Herriko egunkari bat da, *DEIA* hain zuzen ere. Baina lehen laueta bi Euskal Herriko eta estatuko beste bi ditugu.

Datueta pixka bat sakonduz, eta irakurketa zehatzagoa egite arren, kontuan izan behar dugu azalak, hasierakoak nahiz gehigarrikoak, duten funtzioa eta zerez osatuta dauden. Azalean agertzeak, garrantzia eman zaiola esan nahi du, baina argazkiak izaten direnez nagusi informazio eduki (edo iritzi) gutxi agertuko da. Batez ere gehigarrietako azalak argazki huts dira eta honek betelan ukitu bat badu.

Ondorioz, azaletako espazioak kontuan ez bagenituzke hartuko, informazio gehien eskaini duena *ABC* da.

Gutxien probintzi mailan argitaratzen diren hemengo bi egunkarik eman dute.

7. EGUNKARI BAKOITZAK AGERTU DUEN IRITZIA

Deia izan da orotara arreta gehien jarri duen egunkaria.

Azal nagusian bi egunetan agertu zaigu eta gehigarri azalean ere orrialde oso bat argitaratu du. Bestelako berrietan ere argazki anitz tartekatatu du.

Sariketaz, liburuaz eta idazleaz informazioetan zabal ibili da, eta Unai Elorriagari eginiko elkarrizketa bat ere argitaratu du.

Iritzi sailean gaiak ez da idatzi baina euskal kultura munduko pertsona batzuen gogoetak agertu dira. Hauek jarrera positiboa izan dute. Bernardo Atxagak adibidez *“Me alegro por él, por el euskera y por la cultura del ala vizcaina”* dio; Xabier Mendigurenek *“Creo que Unai Elorriaga ya tiene luz propia”* edo *“ha sido una gran sorpresa para todos ... pero el escritor no lo hacen los premios sino sus escritos”*; Ana Urkizak eta Kirmen Uribek ere hitz onak besterik ez dituzte nobela nahiz idazlearentzat. Julen Gabiriak izugarritzko poza agertzen du sariketarengatik, baina euskal sistema literarioaz zalantza esanguratsuak ere agertzen ditu:

“... itzela den bezala pentsatzea Euskadi Sariko hautagaien artean ez dagoela nobela, iazko eta azken urteotako euskal libururik onena izanik. Euskadi Sarien irizpideak zeintzuk diren ez dakit, baina muturreko galanta eman diete Espainiako Narratiba Sarikoek. Kanpoan saritu behar etxean hautatu ere ez dena egiten”.

Hau guztia hau ikusita, esan behar da egunkari honen jarrera oso ona izan dela idazlea, liburu eta sariketarekiko.

Jakingarri lez, aipatu Unai Elorriaga *DEIA*ko kolaboratzailea dela eta honek eragina izan dezakeela egunkariaren jarreran.

ABCK azal nagusian oso leku gutxi eman bazion ere barne aldeko orrietan zabalera handia eskaini dio. Egunkari guztietatik espazio gehien eman dion bigarrena, beraz albisteari oihartzun handia eman zaio.

Azal nagusian sariaren biharamunean ez zen agertu baina hilak 11n bai, eztabaida islatu nahian. Lau informazio artikulua argitaratu ditu, hilak 9an sariketaren berri emanez hasi zen. 10ean Cope kateari idazleak eginiko adierazpenen batzuk plazaratu zituen:

“No considero el premio Nacional de Narrativa un premio español, sino un premio literario, que igual recogería en Finlandia”, “no le importaba la conexión con Batasuna de la editorial Elkar ... el hecho de que no le importe se debe a que su editor es un señor muy simpático”;

eta nobelaren itzulpenaren auzian ere sartu ziren

“Cuando el martes se decía que su novela sólo había sido editada en euskera y que él mismo la había traducido al castellano ... Ayer aseguraba que únicamente había traducido dos capítulos para el jurado.”, “Algunos miembros del jurado se deshicieron en elogios hacia la novela. Resulta difícil creer que hablaran sólo de dos capítulos. ¿Puede juzgarse con sólo eso toda una novela y discernir un galardón”.

Hilak 11n itzulpenaren gaiak jarraitzen du, epaimahaikoek Unai Elorriagaren itzulpena ez zela ez omen zekiten, eta mahaikide baten adierazpena ere azaltzen da “*Esta novela es muy mala*”. Eta azkenik 12an agertutako artikuluan, idazleak bere nobelaz esandakoaren berri ematen dute modu egoki batean eta liskarretan sartu gabe. Jarrera aldaketa bat igartzen da, aurreko egunetako kritikak baztertuz nobelaz eta idazleaz informatzen bai dute. Baina ez da aurreko informazioen zuzenketarik egon.

Iritzi atalean ere zer esana eman du sariketak. Editorialaren artikulua batean gogor sartzen dira idazlearekin eta saritzeko moduarekin:

“Tras recibir sobriamente la noticia del galardón se ha despachado con unas declaraciones hirientes según las cuales no lo considera como premio español, sino premio literario, que igual recogería en Finlandia”, “... de manera innecesaria, se ha pronunciado sobre la simpatía que profesa al editor de su novela –Elkar– ... que en algunos medios se considera en la órbita de Batasuna”, “... es muy claro que el propio jurado y, sobre todo, la sociedad española exigen un respeto que Unai Elorriaga no ha mostrado”, “Una información insuficiente y un jurado mediatizado que se le sustraen por consideraciones políticas dos votos constituyen un error del Ministerio ... pero que destaca de manera especial cuando el lógico agradecimiento del premiado se transforma en un gratuito desprecio a quien lo financia y entrega”.

Iritzi artikuluekin jarraituz, Juan Manuel de Pradak sariketetan epaimahai-kideek aurrera eramaten dituzten azpijokoak azaltzen ditu, baina zeharka sariketa honetan gertatutakoaz ari dela iruditzen zait. Honela dio:

“Lo que adultera estos premios es la estrategia sibilina de “demolición del adversario” que, utilizan algunos miembros del jurado”. “A la postre, si no pueden galardonar la obra de ese autor oscuro o mediocre con el que se sienten hermanados, tiran por la calle de en medio y votan cansinamente al “consagrado” (escritores de avanzada edad y reconocidos méritos, a cuyo currículum la obtención de estos premios nada añade) de turno, o subliman su frustración sumando su apoyo al “periférico” (escritores en lengua vasca, catalana o gallega, cuyas obras los perros viejos ni siquiera han leído), pues de este modo, al menos les queda el consuelo de haber reventado el Premio”.

Valentí Puigek ere ildo beretik zera dio:

“a veces no se vota a favor de un ganador sino con una idea fija sobre quien debe ser el perdedor”.

Iritzi hauek iradokitzen dute nobela edo idazle baten aurka joate arren, bozketa trikimailutsuen ondorioz, SPrako tranbia irabazle suertatu dela.

Gaiari garrantzi handia eman dio, baina ABCK erakutsi duen jarrera negatiboa izan da idazlearekiko eta saritzeko prozesuaren inguruan. Alde batetik gaia politizatze joera izan du eta bestetik nobela gutxiesteko nahia.

Euskaldunon Egunkariak garrantzi handia eman dio berriari.

Azal nagusian leku gehien berak eskaini dio, eta oro har, espazio gehien argitaratu duten egunkarien artean dago (DEIA eta ABCren atzetik).

Informazio motari dagokionez, orekatua izan da, denetarik argitaratu da: argazkiak azaletan, informazio orokorra, Elorriagari elkarrietzeta, iritzi zutabeak.

Atal hauetan guztietan, iritzi zutabeetan ere, jarrera positiboa nabaritzen da, idazlearentzat eta euskal kulturarentzat berri pozgarri lez hartu da. Iritzietan idazlea zoriontzen dute eta bere alde eginez euskal literatur sistema kritikatzan dute. Fredi Paiak adibidez honela dio:

“Agian horrelako gertaeren bitartez konturatuko da gure kultura jatortasunaren izenean patrimonializatu nahi duen zenbait jende etorkizuna beraiek gutxien uste duten lekuan dagoela, hots, hemen”.

Jon Alonsok zera dio:

“... euskal sistema literarioa hunkitu eta inarrosi du... erakunde literarioaren kudeatzaile nagusiak ipurdi bistan geratu dira.”, eta “... jakina saria Madrildik dator eta hau onargaitza izango zaio zenbaiti... erdal kultur munduaren keinu batek euskal antolamendu guztia desegonkortzen eta itzulipurdikatzen ahal duela.”

Adierazpen hauetatik euskal mundu literarioa itxia dela eta batzuentzat aukera gutxi dagoela iradokitzen da, kanpotik etorri direla errekonozimen-

duak kasu honetan, eta batez ere, sariketa honek euskal literatur sistema hankaz gora jarri duela.

Egunkariak, sariketarekiko jarrera oso ona izan du, bai eman zaion lekuagatik eta bai informazioaren nolakotasunagatik.

Aipatzekoa da Unai Elorriaga Egunkariako kolaboratzailea dela eta honek eragina izan dezake agertu duen jarreran.

El Paísek albiste honi eman dion garrantzia handia izan da.

Azal nagusian ezer agertu ez arren barrualdean leku zabala eman dio. Sariaren ondorengo egunean informazio orokorra, idazleari galdeketatxo bat eta iritzi artikulua bat argitaratu zituen. Urriaren 11n hedabide batzuk sortu zuten ika-mikaren berri ere eman zuen, Josefina Aldecoa eta Andrés Sorelek egin zituzten adierazpenetan agertzen dira. Bi epaimahaikide hauek hedabide batzuk sortutako eztabaida “interesada y política” dela diote, Cope katean epaimahaia salatu zuen, bi kapitulu bakarrik irakurritako nobela bat saritu omen zutelako, gaia politizatu nahi izan dela diote. Idazlearekin ere sartu omen dira. Zera esan omen zuen Elorriagak: “no le importaba la conexión de Batasuna con la editorial Elkar”, eta bere nobelan sinistu duten eta argitaratzeko aukera eman zioten pertsonetikiko eskerdun sentitzen zela esan zuen. Honen aurrean Josefina Aldecoa eta Andrés Sorelek esan zuten “el escritor vasco tiene derecho a pensar como quiera. No hemos valorado sus ideas, sino su escritura”.

Dena den, iritzi artikulua izan dira nagusi. Jon Kortazarrek, bi iritzi artikulutan, gogoeta interesgarriak egiten ditu gertaera honetaz eta euskal literatur sisteman izan duen eraginaz. Honela definitzen du jazotakoa: “... *alegría y sorpresa en el sistema literario*”. Euskal literatur sistemaz hau dio:

“Estuvo a punto de ganar el pasado Premio de la Crítica ... Sin embargo, no figura entre los finalistas del Premio Euskadi de Literatura en Euskara ...”, “La posición de Unai Elorriaga dentro del sistema narrativo vasco puede parecer periférica. Tras los grandes nombres canónicos de la narrativa en euskera (Bernardo Atxaga, Ramón Saizarbitoria o Angel Lertxundi) ...”, “A veces las literaturas pequeñas representan sistemas difíciles y poco flexibles ... de vez en cuando viene bien una sacudida ...”, “La obra literaria es un artefacto hecho con palabras, pero estas pueden no significar lo mismo a personas distintas ... es también una comunicación que se produce en una sociedad que mantiene unos valores. Se inserta en un proceso cultural, que depende de factores psicológicos y culturales, de forma que la obra literaria se convierte en signo cultural. Y la sociedad lectora ... opina y valora de acuerdo a esos patrones culturales. En las literaturas pequeñas sucede que los valores épicos ... suelen preferirse a los valores lúdicos, y esta novela de Unai Elorriaga se define en su juego ...”.

Iratxe Gutierrezen hausnarketak ere sakontzen du literatur sisteman:

“... sariak iristean eleberriaz hitz egiteari utzi eta sistemarekiko ardura pizten da, batik bat bi mailetan: idazlearen irudiari dagokionean eta eleberri honek beteko

duen lekuari dagokiona. Idazleriari begiratzuz, sariak gizartearen gehiengoarentzat ezezaguna zen idazle baten irudia kaleratzen lagundu du ... Bestetik ... euskal literaturaren eremuan badu eraginik. Aztertzekoa litzateke eragin hori saria irabazteak sortu duen edo komunikabideek bultzatu dute. Baina, argia da irakurleengan literatur sistemaren norakoak ahopeka zabaltzen direla”.

Josefina Aldecoa eta Luisa Etxenikek nobelaren balioak goraipatzen dituzte.

Oro har El Paisek jarrera oso ona izan duela iruditzen zait, bai eman dioten espazioagatik eta bai informazioaren nolakotasunagatik.

EL CORREOk berriari eman dion oihartzuna ez da handiegia izan. Argitaratutakoaren nolakotasunari dagokionez, azal nagusian aipamen txiki bat, berriaz informazio orokorra eta orrialde bateko elkarriketa eskaini ditu.

Iritzien atalean ez da egon artikulurik eta kultur munduari ere ez zaio galdetu.

Beraz nik esango nuke egunkari honek ez duela jarrera oso ona izan, berria emateko eginbeharra bete duela besterik gabe, garrantzirik eman gabe.

La Razónek garrantzi ertaina eman diola esango nuke, EL CORREOren atzetik eta Gararen aurretik dago eskaini duen espazioa kontuan izanik.

Azal nagusian hilak 9an aipamentxo bat egin zuen, eta egun berean informazio orokorra eman zuen barrualdeko artikulua batean. Hilaren 11n sortzen ari ziren salaketa faltsuen aurrean, artikulua oso argigarri bat atera zuen. Bertan Andrés Sorel eta Josefina Aldecoa, informazio faltsuei erantzunez, egin zituzten adierazpenak agertzen ziren:

“Es indignante que se digan estas cosas”, “que se había concedido el galardón, habiendo leído tan sólo dos capítulos.” “Fue todo muy correcto ... esta polémica es lamentable”.

Itzulpenaren gaiaz Unai Elorriagaren azalpen batzuk ere ematen dituzte:

“el premio tienen distintas fases, y para la primera, donde se hace una preselección ... sólo pude entregar dos capítulos traducidos al castellano.”, “una vez como finalista sí que entregué un ejemplar entero traducido”.

COPE kateko, “La tarde” programaren zuzendari eta aurkezle den Cristina López Schilichting-ek, idazlearekin eduki zuen elkarriketa batetan esandakoa desitxuratu egin dela salatu zuen, honela dio:

“se han puesto en boca de Elorriaga cosas que nunca dijo aquí”, “además de la falsa polémica de los dos capítulos, una frase –que nunca llegó a pronunciar– que le vinculaba al entorno de Batasuna (“desconocía que la editorial Elkar esté siendo investigada por el juez Garzón”); “y otra –tergiversada– en la que el

escritor destacaba que “si me dan un premio en París, en Finlandia o en Canadá, si es un premio realmente literario, lo recibiría con el mismo agrado”.

Larunbatean, hilak 12, beste artikulua bat argitaratu zuen sariketaren aukeraketa prozesua azalduz, eta igandean Elorriagarekin izandako elkarriketa bat.

Iritzi artikulurik ez da egon.

*La Razón*ek sariketa honen aurrean izan duen jarrera ona izan da. Idazleaz eta liburuaz hitz onak esan dituzte, eta egondako salaketak argitzen saiatu dira.

Garak eman dion garrantzia ez da handia izan, batez ere kontuan izaten badugu joera abertzalea duen egunkari bat dela.

Espazioari dagokionez, zazpigarren postuan dago, erditik behera beraz. El Correo, La Razón eta El Mundorekin batera sailkatu dut eskaini dion espazioa kontutan hartuta.

Argitaratutakoaren nolakotasunari dagokionez, sariaren biharamunean azal nagusian agertu zen eta informazio orokorra eman zuten. Hurrengo egunetan iritzi zutabeak, solte, agertu dira. Informazio aldetik ez da asko zabaldu beraz.

Nabaritzen den jarrera positiboa da, baina poztasun handirik gabe. Azalean “EL PREMIO ESPAÑOL DE NARRATIVA ...” hasten da izenburua, eta *español* hitzak mesprezu kutsu bat duela iruditzen zait. Bestalde, iritzietan Xabier Mendigurenek garrantzia kentzen dio sariari (“*SPrako tranbia liburu on bat zen sari hori eskuratu aurretik*”) eta Laura Mintegik sariaz poztu dela esan arren, oso hitz gogorak jaurti dizkio Unai Elorriagari, beste euskal idazle batzuk mereziagoa zutela sari hori esaten baitu:

“... ez da goxoa, berak ere jakitea Euskal Herrian idazle handi batzuek ez dutela jaso sari hori, baina beren maila literaria heldzeko urte asko dauzkala oraindik ...” “... arriskutsua dela ... gure lurretik kanpo emandako sariketa batek epaitzea. Ez dute baloratzen dagoena, heldzen zaiena baino”.

Garak, erredakziotik, ezusteko honen aurrean izan duen jarrera ez da txarra izan, baina nahiko apala esango nuke nik. Eta ez du idazle euskaldun batek ‘egunero’ Sari Nazionala irabazten!

Iritzietan berriz orban ilun bat bizkarreratzen diote sariketari.

El Mundok sariketari jarri dion arreta txikia izan da, espazio gutxi eskaini dio, Madrilgo egunkarietatik gutxien.

Urriaren 9an azal nagusian lerro bat eta barrualdean orri bat, elkarriketa, informazio orokorra eta iritzi labur batzuk dituela. Iritzietako batzuk:

Andrés Sorel: “La lengua no tiene fronteras ni nacionalismos”, “... los criterios de valoración fueron puramente literarios”; Felipe Juaristi: “Ya era hora ... en el País Vasco se está haciendo buena narrativa”; Anjel Lertxundi: “Me produce una inmensa alegría que el galardón sea para un autor vasco, pero es una sorpresa impresionante porque se trata de su primera novela”.

Sorel adierazpenek, testuingurua jakin gabe irakurrita, kritikaren baten zain, zerbaitetaz babestu nahiean bezala dagoela iradokitzen dute. Bertako idazleak berriz pozez eta sorpresaz hartu dute.

Hilaren 13an nobelatik ateratako pasalditxo bat, euskaraz eta gaztelaraz, argitaratu zuen.

El Mundoren jarrera laua izan dela esango nuke. Ebazpen honen kontra edo nobelaren kontrako iritzirik ez du agertu baina garrantzi gehiegirik ez dio eman. Egia da ere, eztabaida antzuetan ez dela sartu.

Arabako Egunkaria eta **Diario de Navarra** garrantzi oso txikia eman diote, kontuan izanda ezusteko notizia bat izan dela.

Sariketaren biharamunean azalean laukitxo txiki bat eta gaiaz informazio orokorra emateko orri erdi bat. Iritzik ez da azaldu.

Uste dut sariketa honi hain arreta gutxi jartzeak baduela azpi jarrera bat, garbi idatzita agertzen ez den iritzi bat, jarrera eskasa hain zuzen ere.

8. ONDORIOAK

Bost egun hauetako egunkari literaturaz blaituta, esan dezaket interesgarria izan dela azterketa hau. Literatur sistema aztertu nahi nuen eta bete betean asmatu dut. Irakurri ditudan lerro horietan batez ere sistemaz hitz egin da.

Bi eztabaida agertu zaizkigu, bata ABCk sortu duena eta bestea bertako egunkarietan eta *El País*en (euskal kritikoek) azaldu dena sistemaren inguruan.

Baina lehenik, aipatu behar da eztabaidarik sortu ez duena eleberria bera izan dela. Liburua guztiek goraipatu dute eta ez da egon inongo kritikarik, ez dago ‘literatur kritikarik’. *SPrako tranbia* kalitatezko eta berritzaile den literatura on bat dela esaterakoan adostasuna dago.

Sariaz eta idazleaz, oro har jarrera ona agertu dute egunkariak, batzuek garrantzi gehiago emanez eta beste batzuek gutxiago, baina positiboa salbuespen bat salbu.

Salbuespena ABC izan da, bere jarrera oso negatiboa eta maltzurra izan delako. Unai Elorriagaren hitzak maltzur maniatuz gaia politizatu nahi izan

du, Elkar argitaletxearen gaiaz eta sariaren nolakotasunaz (espainiarra, finlandiarra ...). Epaimahaikoei ere irain galanta bota die, bi kapitulu bakarrik irakurrita saritu dutela esatean. Lehen hiru egunetan horretan aritu ondoren larunbatean beste bide batetik hasi zen eraso. Epaimahaikide zenbaitek nobela baten alde ordeztu, beste finalista baten kontra joateko estrategia izaten omen dute helburu eta azpijoko horien ondorioz *SPrako tranbia* suertatu dela saritua iradokitzen dute. Liskarra sortu nahi honetan, sari honek barne minen bat piztuko balu bezala, gezur galantak esatera iritsi dira. Egunkari honen jokabidea aztertzerakoan kontuan izan behar dugu gaur egun bizitzen ari garen egoera politikoa, Espainia eta Euskal Herriaren arteko tirabira eten-gabea. Giro honetan edozein gai aprobetxatzen dute zenbaitek gatazka sortzeko. Honek hedabideen etikaz galdetzeraz garamatza. Ideia politiko batzuekin itsututa edozer esatea zilegi dela dirudi.

Egunkari batzuk jarrera txarra erakutsi ez arren, sariketari hain garrantzi gutxi emateak berak azpi-jarrera bat erakusten du. El Periódico de Álava eta Diario de Navarraren kasua oso nabarmena da, eta neurri batean El Mundo, Gara, La Razón eta El Correorekin berdina gertatzen da. Euskal Literatur munduan izan den ezustekoa kontuan izan da, Garak eta El Correok ere hainbeste garrantzi ez emateak badu esangura. Garak saria espainola delako eta El Correok euskara eta euskal kultura ez dituelako gehiegi aintzakotzat hartzen, izango dela suposatzen dut.

Dena den, hasieran eginiko sailkapena, bertakoak eta Estatukoak, antzu samarra datorkit joerak antzemateko orduan.

Baina batez ere Euskal Literatur Sistemaz hitz egin da, sariketa honek suposatzen duenaz, idazle periferikoetatik eta kontsagratuetatik, sariak Elorriagari ekarriko dizkion ondorioez. Sorpresa eta poza, poza eta sorpresa eragin ditu, eta batzuen gain halako erresumin bat.

Iritzi sailetan, kultur munduko hainbat adituren ahotan egon den galdera zera da: Nola da posible Euskadi Sariak aukeratua ere izan ez den lanak Narratiba Sari Nazionala jasotzea? Euskadi Sariak dituen irizpideez galdetzen da. Argi dago bi sari hauetan erabiltzen diren irizpideak ezberdinak direla. Jon Kortazarrek bere gogoetetan dionez literatura txikietan gai epikoak nagusitzen dira eta *SPrako tranbiak* ludikotasuna jorratzen du. Nork markatzen ditu literatura zehatz bateko joerak? Irakurleak, editoreak, epaimahaikideak, iritzigileak? Guztiek izango dute eragina, baina kanona eraikitzerako orduan zeresan gutxien duena literatura sistemaren protagonista nagusia dela esango nuke nik, *irakurlea* hain zuzen ere.

Fredi Paiak eta Jon Alonsok gogor salatzen dute Euskadi Sarian egon den ausentzia hau, bertako egituraren periferiaren periferian jarduten duen idazle batek sari garrantzitsu hau irabaztean euskal erakunde literarioaren kudeatzaile nagusiak ipurdi bistan geratu direla diote. Gure sistema txiki hau itxia eta mugigaitza dela aldarrikatzen dute. Zeintzuk dira erakunde literarioaren kudeatzaile nagusiak?

Sariketek erabiltzen dituzten irizpideen gainera, hobeto esanda azpitik, ABCk urratu duen ildo dago. Sariketetan epaimahaikide batzuk nobela baten aurka joateagatik merezi ez duen bat suerta daitekeela irabazle. Gertatzen dira azpijoko maltzur horiek? Galdera airean gelditzen da epaimahaietan egoten diren jakitunek erantzun dezaten.

Batzuengan halako erresumin bat piztu duela adierazten nuen lehen. Bai, hau Garako orrialdeetan Laura Mintegik idatzitakoan nabaritzen da. Kanonizatuen alde egiten du eta Unai Elorriaga idazle lez gutxiesten du bide batez. Elorriagak baino gehiago merezitakoak ba omen ditugu euskal literaturan eta. Elorriagari asko falta omen zaio idazle kanonizatu horien mailara iristeko. Nork igotzen ditu idazleak aldare horietara?

Sari honekin Unai Elorriaga periferiaren periferiatik atera dela argi dago, kritikoek ere hitz onak izan dituzte, eta akuilu honekin liburua askoz gehiago irakurriko da. Saldu ere noski, sariaren aurretik 2.000 bat ale argitaratu ziren eta bi hilabetera sei aldiz gehiago, 13.000 ale. Guztia kate bat da. Baina *SPrako tranbiak* sariketa ez balu irabazi, 2.000 lagunen apalategian ahaztuta legoke agian.

Literaturaren ikuspegi inmanente hori, agian ikuspegi utopikoa, defendatuz, eta sariari inongo mespretxurik egin gabe, Xabier Mendigurenek zioena esango nuke: "*SPrako tranbia* liburu on bat zen saria irabazi aurretik ere".

9. BIBLIOGRAFIA

2002ko Urriak 9, 10, 11, 12, eta 13ko *DEIA*, *ABC*, *EGUNKARIA*, *EL PAIS*, *EL CORREO*, *LA RAZÓN*, *GARA*, *EL MUNDO*, *EL PERIÓDICO DE ÁLAVA* eta *DIARIO DE NAVARRA*.

